

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 107/2022 Erabakia, martxoaren 1ekoa. Onestea aurreikusi ezin daitezkeen egoerak izanik Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek finantzatu ezin dituzten ustekabekoei eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzarako deialdia

Foru aldundiaren gobernuaren legegintzaldiko helburuen artean, lurralde oreka erdiestea nabarmentzen da. Horretarako, laguntza publikoa erabili behar da toki erakundeek beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei ahalik eta azkarren aurre egin ahal izateko.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei sortzen zaizkien ezustekoek eta larrialdi obrek eragiten dituzten gastuak finantzatzen laguntzea. Oro har, ustekabekotzat jotzen dira betebeharrak ekonomiko hauek: aurrekontuan kreditu nahikorik eduki ez eta toki erakunde horiek berehala finantzatu ezin dituzten betebeharrak ekonomikoak, baldin eta horiek ez betetzeak pertsonak arriskuan jartzen baditu edo jarri ahal baditu. Dirulaguntza hauen funtsa da toki erakundeei laguntza publikoak ematea larrialdi jakin batzuetan, hain zuzen ere presakotasuna dela eta beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei aurre egin ahal izateko.

Irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretuaren bidez, oinarri orokorrak onetsi ziren. ALHAOren 2018ko 104. zenbakian argitaratu ziren, irailaren 10ean.

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian hau dago ezarrita: "1. Foru arau honen 5.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuz lortutako urteko zuzkiduraren gehienez ere ehuneko sei gorde ahal izango da ezustekoak eta larrialdiko obrak finantzatzeko."

Kontuan izanik Arabako Lurralde Historikokoaren 2022rako Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren 29.3 artikuluan Obra eta Zerbitzuen Foru Planerako aurrekontua 17.303.342,00 eurotan ezarrita dagoela, 2022an gordetzeko den gehieneko kopurua 1.038.200,52 euro da. Hala ere, une honetan 500.000,00 euro gordetzea proposatzen da, baina zenbateko hori gehieneko muga horretara arte handitu daiteke, beharrezkoa izanez gero.

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100era heldu ahal izango da dirulaguntza, 300.000,00 euroko gehieneko muga batekin, toki erakunde eta proiektu bakoitzeko.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako arau esparrua.

Era berean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Lurralde Orekaren Sailak norgehiagoka aske bidez dirulaguntzak emateko deialdiari. Dirulaguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten. Deialdia espedienteari lotuta dago eta erabaki honen I. eranskina da.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoaren 2022ko ekitaldirako Aurrekontuko "10203-459100-76200105 Larrialdi Obrak" izeneko partidaren kargura emango dira dirulaguntzak.

Hirugarrena. Ahalmena ematea Lurralde Orekaren Saileko diputatuari obrak izapidetu eta gauzatzeko behar adina egintza eta xedapen eman ditzan.

Laugarrena. Aldatzea Foru Sektore Publikoaren 2020-2022 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren 887/2021 Erabakiaren bidez onetsitako dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskina, zeina irailaren 27ko 840/2019 Erabaki bidez onetsi baitzen, aldatuta erabaki honen II. eranskin gisa atxikitzen den fitxa.

Bostgarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

I. ERANSKINA

LURRALDE OREKAREN SAILAK EMANGO DITUEN DIRULAGUNTZA
HAUEN 2022KO DEIALDIA: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKOTOKI
ERAKUNDEEI BEREN KABUZ FINANTZATU EZIN DITUZTEN EZUSTEKOEI
ETA LARRIALDI OBREI, PERTSONAK ARRISKUAN JARTZEN EDO JARRI AHAL
DITUZTENEI, AURRE EGITEKO EMANGO ZAIZKIEN DIRULAGUNTZAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren Sailak ezusteko premiazko gastuak eta larrialdi obrak finantzatzeko aurrekontuko kredituen kargura emango dituen dirulaguntzak emateko bete beharreko betekizunak, betebeharrak eta prozedurak ezartzea.

Laguntza programaren ondorioetarako, ezustekotzat eta larrialdi obratzat joko dira esku hartze azkarra eta premiazkoa egiteko inbertsio ekonomikoa behar duten jardunak, baldin eta istripuetatik eratorriak badira edo oso epe laburrean gertatzeko arrisku handia badute hondamendi naturalen, muturreko gertaera meteorologiko kaltegarrien edo oso bortitzen (ur ekaitzak, haizea, ur goraldiak, etab.) edo kalteak saihestera bideratuta dauden bestelako inguruabar kaltegarri eta kontrolaezinen ondorioz, eta kaltea eragin badezakete zerbitzu publikoak emateko ondasun publikoetan, etxebizitzetan edo beste higiezin batzuetan, eta pertsonentzat benetako arriskua ekar badezakete eta toki erakundeek erakusten badute ez direla gai haiek finantzatzeko.

Larrialdi edo ezustekotzat jo ahal izateko, gertakizunak eskaera egin aurre-aurreko hamar hilabeteen barruan agertu behar du.

Toki erakundeek jardunak finantzatzeko gaitasunik ez dutela joko da, baldin eta gastua kasuan kasuko aurrekontuan sartuta ez badago, baldin eta likidatutako azken ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren eta finantzatu beharreko jardunaren aurrekontuaren arteko ratioa 3tik (hiru) beherakoa bada eta baldin eta hurrengo 4.2 puntuko c) eta d) apartatuetan aipatzen diren nahitaez aurkeztu beharreko ziurtagiriak behar bezala egiaztatzen badira.

Arabako kontzejuen kasuan, likidatutako azken ekitaldiko kutzako izakina hartuko da erreferentzia gisa. Kontzeptu hori berrikusi eta egokitu ahal izango da, instrukzio organoko teknikariek beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio gehigarria oinarri hartuta.

Diruz lagundu ahal izango dira ondoko egitate hauengatik sortzen diren betebeharrak ekonomikoak:

- a) Fenomeno naturalek egindako kalteak.
- b) Araudien aldaketek, eskumen hartzeek edo administrazio publikoen ebazpenek sortzen dituzten betebeharrak.
- c) Dagoeneko esleituta dauden eta hasieran aurreikusi ezin izan diren obra aldaketak, beharrezkoak direnak azpiegitura edo ekipamenduei estankotasun, egonkortasun eta segurtasuna emateko, baldin eta gabezia horrek pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen badu.
- d) Aurreikusten gaitz direlako aurrekontuan ezarri ezin diren gertaerak eta ezinbestean gertatzen direnak.
- e) Etxebizitzaren egonkortasuna edo han bizi diren pertsonak babesteko beharrezkoa den beste edozein egoera.

Inolaz ere ez dira onartuko betebeharrak hauek: interesak, errekarquak, zehapenak (administratiboak zein penalak), ez prozedura judizialeko gastuak.

Dirulaguntzaren xede den jarduketa egiten denean toki erakundeak ahaleginak egin beharko ditu oztopo arkitektonikoak eta komunikazio oztopoak ezabatzeko, egonez gero.

Diruz lagundutako jarduera betetzeko administrazio kontratuak egiten badira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua aplikatu beharko da. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean esleipendunak izango duen betebeharrak jaso beharko da: prestazioa ematean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea; hori guztiori, kontratuen legedia betetzeko eta betiere organo eskudunak erabaki badu neurri hori aplikatu behar zaiola kontratazio mota edo ezaugarri horri. Halaber, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, esleipendunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, eskumena duen organoak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

2. Erakunde onuradunen betekizunak

2.1. Deialdi honetan ezartzen diren dirulaguntzak Arabako Lurralde Historikoko udalentsat (Gasteizkoa salbu) eta kontzejuentsat dira.

2.2. Onuraduntzat joko dira dirulaguntza emateko moduko egoeran dauden toki erakundeak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan daudenak, baldin eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. Dirulaguntzaren zuzkidura eta zenbatekoa

Deialdiko dirulaguntzen programarako hasierako gehieneko hornidura 500.000,00 eurokoa da, eta Arabako Foru Aldundiaren 2022rako aurrekontuko "10203-459100-7620010376200105- Larraldi obrak" partidaren kontura ordainduko da. Edonola ere, kopuru hori handitu egin ahaliko da Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren urteko zuzkiduraren ehuneko 6 gehienez ere.

Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 izan daiteke. Deialdi honetako dirulaguntzak, gehienez eta toki erakundeko, ezin izango ditu 300.000,00 euroak gainditu.

4. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

4.1. Deialdi honen xede diren laguntzak eskatzeko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta programaren indarraldia amaitzean bukatuko. Programaren indarraldia amaitutzat joko da, jasotako eskaeren arabera, erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen denean, aurrekontu gehikuntzak barnean hartuta, halakorik egitea erabakiz gero. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, webgune honetan argitaratuko da: www.araba.eus.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 14.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, egoitza elektronikoan erabilgarri dagoen berariazko izapidearen bidez aurkeztu beharko dira eskaerak:

<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-impresvistos-y-obras-de-emergencia>.

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ustekabeko-eta-larrialdiko-obrentzako-laguntzak>.

Programa amaitu ondoren ez da eskaera gehiago onartuko.

4.2. Eskaera arrazoituarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Hirigintza arloan eskumena duen udal organoaren teknikari eskudunak egindako txostena, dena delako ondasunaren premia eta mantentze egoera arrazoitzen dituen gertakizunaren aurretik.

b) Jarduna(k), zeinetarako dirulaguntza eskatzen baita, egiteko aurrekontu xehatua (tokia, kapituluak, obra unitateak...), eta, hala badagokio, lege gaitasun nahikoa daukan teknikariak egindako proiektu tekniko baloratua.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean agindutakoaren arabera kontratu txiki bat bada, hornitzaile desberdinei eskatutako gutxienez hiru eskaintza aurkeztu beharko dira kontratazioaren aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkaturan ez badago eskaintza horiek egiten dituen hornitzaile kopuru nahikorik; kasu horretan, behar bezala justifikatu beharko da erakunde eskatzaileak sinatutako dokumentu batean.

Bat etorri Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezarritakoarekin, obren esleipendunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, eskumena duen organoak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

c) Aurrekontu kreditua nahikoa ez dela egiaztatzen duen txostena, toki erakunde eskatzailearen organo eskudunak emana.

d) Egin beharreko aurrekontu aldaketa ezin dela egin egiaztatzen duen txostena, toki erakunde eskatzailearen organo eskudunak emana. Baldin eta egitatea aurreko 1. apartatuko a) letran azaltzen bada, ez dago txosten hori aurkeztu beharrik.

e) Espedientea eragin duen gertaeraren frogagiria. Deialdi honen lehenengo apartatuan jasotako hamar hilabeteko epea behar bezala egiaztatu beharko da hirigintzako udal zerbitzuaren txostenaren bidez. Egitatea 1. puntuko a) apartatuan (Fenomeno naturalek eragindako kalteak) jasotako kausaren ondorio denean, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak emandako datu meteorologikoen ziurtagiria ere aurkeztuko da.

f) Jardunak gauzatzeko epea, dirulaguntza ematen denetik. Epeak kontuan hartu beharko ditu lortu daitezkeen lizentziak ematea, erakundearen barneko administrazio izapidetzea eta laguntza eskaeraren xede diren jardunen kontratazioa eta betearazpena.

g) Eskatzaileak xede bererako nazioko zein nazioarteko administrazio, erakunde publiko edo entitate pribatu baten dirulaguntzarik, laguntzarik, diru sarrerarik edo baliabiderik jaso badu, horren berri ematen duen ziurtagiria, Idazkaritzak egina.

4.3. Nolanahi ere, Lurralde Oreka Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

4.4. Baldin eta aurkeztutako eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Oreka Sailak erakunde interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskaera, adituz atzera egin dutela beren eskaeran. Beharrezko agiriak osatzen diren unean, eskaera eginda eta erregistratuta dagoela ulertuko da, behin betiko eta ondorio guztietarako.

4.5. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Deialdiaren ebazpena

5.1 Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak txosten teknikoak egingo du bidalitako dokumentazioan eta egindako landa ikuskaritzan (egin bada) oinarrituta. Txostenean, bidalitako dokumentazio teknikoaren analisiaren emaitza azalduko da, bai eta aurrez aurreko egiaztapenarena ere, halakorik egin bada. Bertan, dagozkion gomendioak eta aginduak ere jasoko dira. Era berean, txostena idatzi duten teknikariek egokitzen jotzen dutenean, konponbiderako proposamen teknikoak, kalteak lehengoratzeko, inpaktuak minimizatzea eta abar jaso ahal izango ditu. Era berean, obrak definitzeko eta gauzatzeko behar den dokumentazio teknikoak (proiektuak, memoriak, azterlan topografikoak, geologikoak ...) izatearen premiari buruzko preskripzioak jaso ahal izango ditu. Preskripzio horiek nahitaez bete beharrezkotzat jotzen dira, eta dirulaguntza jasotzea baldintzatzen dute, baldin eta organo ebazleak onetsi baditu, bai berariaz, dirulaguntza emateko xedapenean, bai instrukzio organoak kide anitzeko organoari aurkeztutako txostena onartuz.

5.2. Instrukzio organoak txosten bat egingo du, eta kide anitzeko organo bati helaraziko dio, zeina hauexek osatuko baitute: Lurralde Oreka zuzendariak, batzordeburu izango denak; Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuari atxikitako kide batek edo gehiagok; eta zerbitzuaren buruak, edo hark eskuordetzen duenak, zeinak idazkari lanak egingo baititu.

Kide anitzeko organoak ebazpen proposamena egingo du, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Proposamenak eskaera bat baino gehiago baditu, haien lehentasun hurrenkera jaso beharko du.

5.3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpenean ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5.4. Eman beharreko ebazpena emango du organo eskudunak, hiru hilabeteko epean gehienez, eskaera zuzen eta osorik sartzan denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, eskaerari ezezkia eman zaiola ulertu ahal izango dute erakunde eskatzaileek.

5.5. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein erakunde onuraduni eman zaien (izena), eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5.6. Ebazpen horretan, baiezkia bada, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta beste hauek ere: ordaintzeko modua, zer baldintzarekin esleitu den, lanak gauzatzeko epea eta lana ezarritako epean bete ezean zer ondorio izango diren.

5.7. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.8. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

5.9. Erakunde onuradunen batek uko egiten badio dirulaguntzari, dirulaguntza eman ahal izango zaie oinarri orokorren bosgarren apartatuan ezarritako lehentasun ordenaren arabera hurrengoak diren toki erakundeei, azkenean deialdiari esleitutako diru zenbatekoa muga izango delarik, eta ondorio horietarako, eskaera benetan aurkeztu dela ulertuko da, zuzen eta osorik aurkezten denean.

5.10. Diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

6. Xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia

6.1. Dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduna osorik gauzatu beharko da, bai eta handik eratorritako betebeharrak aitortuak ere, 2022ko abenduaren 31 baino lehen, salbu eta dirulaguntza emateko ebazpena 2022ko azken 5 hilabeteetan onesten bada. Kasu horretan, obra gauzatzeko gehieneko epea 2023ko ekainaren 30era artekoa izango da.

6.2. Kasu berezietan, eta aurretik bidezko justifikazioa onartuta, Lurralde Oreka Sailak dirulaguntzaren xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia luzatzea onartu ahal izango du. Luzapenaren iraupena kasuan kasuko inguruabarren arabera finkatuko da; nolana ere, epealdia gehienez beste 6 hilabete luzatu ahal izango da, erakunde onuradunak hasierako epealdia amaitu aurretik eskaera justifikatua aurkeztuz gero, bai eta Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaletaren Zerbitzuko teknikarien aldeko txostena ere.

7. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

Ordainketak izendunak izango dira erakunde onuradun bakoitzarentzat.

Diruz lagundutako jardunerako dirulaguntza osoa edo zati bat ordaindu ahal izateko, obra ziurtagiriak edo, egoki bada, gastuaren frogagiriak aurkeztu behar dira. Gastuaren lehen ziurtagiriarekin edo frogagiriarekin batera, kontratazio prozeduraren esleipen ebazpena aurkeztu beharko da. Ordainketak justifikatu beharreko aurrerakinak izango dira.

Dirulaguntzen justifikazioa justifikatutako kontu sinplifikatua izango da, eta hauek osatuko dute:

1.) Jardun memoria bat, egiaztatzen duena dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, eta burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. Instrukzio organoko teknikariek obra gauzatzeko proiektua idazteko agindua eman badute, obra amaierako proiektua ere aurkeztu beharko dute.

Era berean, memoria horretan adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin den hedapena edo publizitatea.

2.) Jarduerako gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, ondoko hauek adierazten dituena: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

3.) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4.) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita haietatik eratorritako interesena ere.

Itzulketak lotuta egongo dira toki erakunde bakoitzak Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean dituen partaidetzei.

Justifikazio kontua aurkezteko azken eguna 2023ko otsailaren 15a izango da, gauzatzeko epea 2023ko ekainaren 30era artekoa duten eskaeren kasuan izan ezik; kasu horretan, justifikazio kontua aurkezteko epea 2023ko abuztuaren 15ean amaituko da.

8. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espedientea hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

9. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

10. Azken klausulak

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

II. ERANSKINA

Eremu funtzionala: 0394.

Dirulaguntza lerroa: Larrialdietako obretarako dirulaguntzak.

Ardatz estrategikoa: Arabaren lurralde garapena.

Saila: Lurralde Oreka.

Aurrekontu partidak:

10203. G/459100/76200103 Larrialdietako obrak AKK.

10203. G/459100/76200105 Larrialdietako obrak.

| 2020 | 2021 | 2022 | TOTAL |
|------------|------------|------------|--------------|
| 338.340,10 | 500.000,00 | 704.632,00 | 1.542.972,10 |

Dirulaguntzaren xedea:

Aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko ekintzak.

Onuradunak: Arabako udalak eta kontzejuak.

Emate prozedura: Lehia askea.

Dirulaguntzaren oinarritzko lerroak:

a) Fenomeno naturalek eragindako kalteak.

b) Araudien aldaketek, eskumen hartzeek edo administrazio publikoen ebazpenek sortzen dituzten betebeharrak.

c) Obretan estankotasuna, oreka eta segurtasuna bermatzeko egin beharreko aldaketak, hasieran aurreikusi ezin direnak.

d) Aurreikusten gaitz direlako aurrekontuan ezarri ezin diren gertaerak eta ezinbestean gertatzen direnak.

e) Etxebizitzaren egonkortasuna edo han bizi diren pertsonak babesteko beharrezkoa den beste edozein egoera.

Baterako finantzaketa: ez dago.

Jarraipen araubidea eta adierazleak:

1. Eskaera kopurua.

2. Emandako dirulaguntzen kopurua eta eskatutako dirulaguntza guztiekiko ehunekoa.

3. Gauzatutako ehunekoa: emandako dirulaguntzen zenbatekoa / aurrekontua.